

# **LEHEN HEZKUNTZAKO 3. MAILAKO DIAGNOSTIKOAREN BARNE EBALUAZIOA**

## **IKASLEEN DATUEN SARRERA**



LH 3. MAILAKO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA  
EVALUACIÓN DE DIAGNÓSTICO DE 3º EP

Lehen Hezkuntzako 3. mailako Ebaluazio Diagnostikoa **barne-ebaluazio irekia eta malgua da**. Bertan, bere autonomia pedagogikoaren eta antolakuntzaren arabera eta Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum ezartzen duen 236/2015 Dekretuan adierazitakoa kontuan hartuta, ikastetxe bakoitzak hainbat aukeraren artean hautatu dezake ebaluazioaren garapena, ikastetxeak dituen beharretara, ezaugarrietara eta Curriculum Proiektura egokituta.

Prozesu hau guztiz garatzeko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak tresneria osatu bat jarri du Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztien eskura, ISEI-IVEIk eta Berritzeguneak espres sortu dituzten lanabes eta ebaluazio prozesuak eskainiz, alde aurretik kontrastatuak izan direnak Lehen Hezkuntzako 3. mailako irakasleekin eta berariaz pilotatuak hauen kalitate teknikoa bermatzeko eta maila jakin honi dagokion ongi egokitzea.

Probak erabili ahal izateko edota emaitzen txosten indibidualak sortzeko, ezinbestekoa da ebaluazio honetan parte hartuko duten ikasleak identifikatzea ikastetxe bakoitzean.

Prozesu hau osatzeko, aplikazio informatiko espezifikoak sortu da, eta bertan txertatu dira zure ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasle guztiak, Sailak alde aurretik dituen datuetatik abiatuta. Beraz, bi zeregin baino ez dituzu izango:

- a) Egiaztatu talde bakoitzeko ikasleen zerrenda zuzena dela, eta oker dagoena zuzendu.
- b) Adierazi, beharrezkoa den kasuetan, ikasleren bat ebaluazio honen batez besteko emaitzetatik baztertzeko normalean aintzat hartu ohi den egoeraren bat ote dagoen.

**Ezinbestekoa da kontuan izatea pauso honek gainerako zeregin guztiak baldintzatzen dituela, besteak beste ikasle bakoitzarentzako sarbide-kodeak ematea probak ordenagailuan egin ahal izateko edota emaitzen txosten indibidualizatuak sortzea.**

Ikasleen datu sarrera errendimendu-proben aplikazioaren aurreko pausoa izango da ikastetxeak aurrez aukeratu duen euskarrian. **Ikasleen datuak egiaztatzeko epea 2017ko maiatzaren 5ean amaituko da.**

Ikasleen emaitzen ondorengo grabazioari dagokionez:

- ✓ Ordenagailuan / tabletan burutzen diren proben aplikazioa sarean eginez gero, erantzunak automatikoki txertatuko dira.
- ✓ Proba paperean egiten baldin bada, ikastetxeak berak txertatu beharko ditu ikasleen ebaluazio proben erantzunak. Horretarako aholkularitza jasoko du eta eskuz grabatu behar izango ditu bere ikasleek emandako erantzun guztiak: itxiak (ikasleak aukeratutakoa: A, B, C edo D), erdiirekiak (E / G) eta irekiak (2 kodea, 1 edo 0).

Hizkuntza eta Literatura Komunikaziorako Konpetentziaren **euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko mintzamen eta idazmeneko** dimentsioen ebaluazioak aplikatuko eta zuzenduko dituzte irakasleek ere. ISEI-IVEI-k mintzamen eta idazmeneko probak egiteko eta ondoren zuzentzeko orientabideak eta ebaluazio irizpideak eskainiko ditu.